


Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2001eko apirilaren 27a • 212. zka.

Sendabelarren sekretua

Iturririk iturri: Amaia Agiriano • Iritzia: Ana Hidalgo • Kirolak: Hector Prieto

Hirusta Zatetxea



Laster zabalik

**Ilargi plaza, 4
Tel.: 943 79 06 57
ARETXABALETA**

inpresok • jai egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak

• fakturak • tarjetak • pegariorioak • sobreak • kalendarioak • filmazioak • publizitatea sarrerak • postulazioak • inpresok • liburuak • katalogoak • aldizkariak • errekordatutakoak • presupuestoak • boletinalak • liburuak • katalogoak • aldizkariak • errekordatutakoak • presupuestoak • boletinalak • errifak • loteria • posterrak • jai egitarauak • kartelak • tarjetak • pegariorioak • sobreak • kalendarioak • inpresok • jai egitarauak • fakturak • tarjetak • pegariorioak • sobreak • kalendarioak • filmazioak • publizitatea sarrerak • postulazioak • inpresok • jai-egitarauak • kartelak • liburuak • katalogoak • fakturak • tarjetak •



Araba Ibilbidea


20550 ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4

Tfnoa.: 943 79 18 44

Faxa: 943 79 29 41

E-mail: info@eguzkigraf.com



EGUZKIGRAF

inprimategia

Sendabedarrak erabiltzen ditzuzu? Zetako?



Marian Uribesalgo

Bai, berbenak erabiltzen ditud, infusinuendako adibidez. Sendabedarren aldekoa naz.



Antonio Arabiarrutia

Ez ditud erabiltzen. Noixien behin mantzania erabili izen dot, baina bestela oso gutxi.



Conrada Olivenza

Katarruendako eukalitua eta menta estulendako erabiltzen dot. Gure etxie sendabedarrekin beteta egoten da.



Jose Olivenza

Batzuk erabili izen ditud, mantzania esaterako.



Elena Molina

Bai, asko. Kalendula infeziñuendako erabiltzen dot, baita erromeroa eta "tomioloa" ere zirkulaziñorako.



Jose Arrivas

Bai, noizien behin erabiltzen ditud. Mantzania sabelerako eta tila lasaiketako.

Aretxagazeta

212. zenbakia. 2001eko apirilaren 27an.
Durana 11, 151 postakutxatila.
ARETXABALETA.
Tel: 943 79 86 21.
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaleako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalgo, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkarteak, Zaraia mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaleako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta
Eusko Jauriaritzako kultura sailaren laguntzaz


BALITXAKUK

(Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta



■ ODOLA EMATEKO KANPAINA MARTXAN

Arabako odol emailleen elkarteak urtero moduan odola emateko kanpaina jarri du abian. Odol emateak, oraingo astean hasi ziren, apirilaren 25ean. Baina maiatzean ere izango da odola emateko aukera. Maiatzaren 2an eta 9an izango dira hurrengo odol emateak. Ordu-tegiari dagokionez, arratsaldez egingo dira, 16:15etatik 20:00ak bitartean. Betiko moduan, elkartekoek atxabaltar guztiak gonbidatu dituzte

Gaztetxearen inguruko proiektua egiteko deialdi zabala egin da

Gaur egun Gaztetxean dauden lagunek egindako proiektua atzera bota zuen alkateak joan den apirilaren 9an. Horren arrazoia, proiektu horretan Aretxabaletako gainontzeko gazteen parte hartze eza izan da. Izan ere, proiektua egiteko deialdia zabala izan arren, gaztetxean gaur egun dauden 50 bat gaztek

bakarrik egin zuten Galar-zako akordioan oinarrituriko gaztetxearen proiektua. Hori dela-eta, alkateak herriko gazte talde guztiak batuko dituen batzar batearako deialdia egin du. Batzarra datorren maiatzaren 2an izango da arratsaldeko 18.00etan udaletxean. Bertara herriko gazte guztiak joateko eskaera egin da.



SANTUEN IRUDIAK KONPONTZERA ERAMAN DITUZTE

Donostian daude dagoeneko Andra Mariaren Zeruratzeko elizaren egondako santuen irudiak. Orain, 25 bat urte parroikia konpontzeko lanak egin zirenean kendu ziren handik santuen irudiak, eta ordutik parroikia bulegoan eta beste lokal batean egon dira gordeta. Orain, eliza barriz ere konpontzen ari direla aprobetxatuz, irudiok txukundu eta zaharberritzea pentsatu dute. Izan ere, guztiak bulegoko hezetasunagatik kaltetuak egoteaz gain, pipiak janda zeuden. Besteak-beste, Kristo gurutzean, Nekealdiko 14 irudi, San Rokeren irudiak eta Errosarioko Ama Birjina bidali dituzte Donostiako Arte-lan enpresara. Zaharberritzeak elizaren konponketako aurrekontuaren barruan daude sartuta, eta uztaileko barriz ere Aretxabaletan egongo dira.

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irujo

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11 / Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Aretxabaletako Udalak sei hilabeterako ondorengo langilea kontratatu behar du

PEOIA

OINARRIAK:


Oinarriak udaletxean jaso ahal izango dira.

AZKEN EGUNA:

Maiatzaren 11.



Aretxabaletako Udala



Udalak, 1992. urtean, Belorrietako zonaldea urbanizatzeko proiektua egin zuenean, eskolak emateko egoitza bertan jartzea erabaki zuen. Horrez gain, lehenengo etxebizitza egiteko baimena eman aurretik, udalak bazekien gerora etxebizitzaren parean egingo zela eraikina.

Belorrietako auzokideek haurtzaindegia egingo dela-eta euren kexa azaldu dute

Belorrietako bizilagunek 30 sinadura batu eta haurtzaindegi berria auzoan egitearen aurka daudela jakinarazi zuten joan den astean udaletxean. Izan ere, haurtzaindegi barriak bi solairu izango ditu eta etxebizitza batzuren aurrealdean eraikiko da. Horren ondorioz, auzoko etxebizitza batzueri kalteak eragingo dizkio haurtzaindegiak, eta jabeak garai baten etxebizitza horiek zuten balioa galdu egingo

denaren beldur dira. Kexatu diren bizilagunek, gainera, etxebizitza erosi zutenean, gerora haurtzaindegia egingo zenaren informazioz ez zutelako jaso adierazi dute.

Udaletxeko hirigintza teknikariak, bestalde, eskolak emateko egoitza horren proiektua 1992. urtean egin zela aipatu du. Udalak Belorrieta auzoan lehenengo etxebizitza egiteko baimena eman aurretik, aurreikusia zuen egoi-

tza hori. Etxebizitzak saldu zituen promotoreak ere bazuen eraikin horren barri, hala ere ez zuen ezer esan. Honegatik guzti-gatik, udalak ezingo ditu auzokideen kexak kontuan hartu, eta aurrez egindako proiektuaren arabera egingo du Pausokak hartuko duen haurtzaindegia.

Eraikuntza egiteko lanak duela hamabost bat egun hasi ziren, eta datorren ikasturterako amaituko dituztelakoan daude.

HAUTESKUNDE MAHAITAKO KIDEAK
Apirilaren 17an egindako ez ohiko bilkuran hautatu ziren hauteskunde mahaietan egon beharreko atxalbarrak nortzuk izango diren. Gela bakoitzeko mahaiburuak, bokalak eta hauentzako ordezkok aukeratu ziren. Dagoneko abisua eman zaie, baina norbaitek ezin badu egun horretan hauteskunde mahaietan egon jakin aste honetan bertan jakinarazi beharko duela Bergarako epaitegian. Gainontzeko guztiek, maiatzaren 13an, goizeko 8:00etan egon beharko dute Kurtzebarri eskolan. Hauteskunde mahaian lan egingo dutenek 11.000 pezeta jasoko dute, eta hurrengo egunean 5 ordu izango dituzte libre lanean. Mahaian zein lan egin beharko duten azaltzeko artezpeide liburuskas jasoko dute etxean.

KONTRIBUZIOA KOBATZEKO DATA AURRERATU DA
Aurten kontribuzioa beste urte batzuetan baino lehenago kobratuko da. Epea maiaztaren 15ean hasi eta uztailearen 2an amaituko da. Aurrerapen hori datozen urteetarako balio katastrofala aztertu behar delako egin da.

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

Aretz
taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14



■ URKULUKO URTEGIA IA GAINEZKA DAGO

Oraingo astean bertan internet bidez jasotako datuen arabera, urkuluko urtegia % 97,15an dago beteta. Hala ere, azken egunetan egin duen euri-arekin laister beteko dela iragarri dute. Izan ere, apirilaren 20an, urkuluren ur maila %95,9an zegoen aste bete beranduago, barrez, %2an igo da ur maila. Datu hauek ikusita, ez dago dudarik, aurtengoan ere uda pasatzeko haina ur izango dugula. Urkulu-tik Antzuolara izan ezik, Debagoieneko gainotzeko herri guztietara ere eramaten da ura.

Ibarretxe lehendakariak urrezko "Q" sariak banatu zituen Coprecin

Pasa den apirilaren 11n jaso zuten Copreciko langileek kalitatearen urrezko "Q" saria. Sariak banatzeko, Juan Jose Ibarretxe Euskadiko lehendakaria etorri zen Aretxabaletara. 12:00etan puntuan heldu zen Ibarretxe. Lehenengo, Coprecin zehar egin zuen bisita. Bertan, duela hilabete Durana kalean Copreciri buruz egindako erakusketa ikusi zuen. Horren ondoren hitzaldiak eto-

rrri ziren. Copreciko gerentekak, Jabier Oleagak, lantegia- ren aurkezpena egin zuen. MMCKo lehendakaria den Jesus Cataniak, barrez, Copreci osatzen duten guztiei zorionik beroenak eman, eta aurrerantzean horrela jarraitzeko animoak eman zituen. Azkenik, Ibarretxe lehendakariak, langile guztiak zoriondu eta Coprecik kalitatearen alde egindako ahalgina goraiatu zuen.



Copreciko gerentea eta presidentea Ibarretxeri lantegia erakusten

■ SANEAMENDURAKO ODIK JARRI DIRA Larrinberaino sartu ditu Udalak orainarte uren saneamendurako hodiak. Azken hilabetean Durana kaltetik hasi eta Larrinberaino doan bidea zulatu eta hodiak sartzen ibili dira langileak. Udalaren asmoa, Oro auzoko baserrien saneamendua hobetzea da. Horretarako, auzoko baserri guztien hondakinak jaso eta Larrinberaino jeisteko proiektua egin gura du udalak. Handik, orainarte sartu diren hodietan zehar pasatuko lirerateke hondakin guztiak saneamendurako hodi orokorretara.



“ARINSA”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19



AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19 eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO INDUSTRIALDEAN



Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53



Ibarretxe da baietza

EUSKO ABERTZALEAK





■ ABERRIA GORAIPATUZ

Eguraldi bikaina lagun, giro onean ospatu zen Aberri eguna herrian. Udaletxetik garai bateko udaletxe zaharrera ikurriña eraman ondoren, han alkatearen agurra eta dantzariak izan ziren. Aurtengoan ikurriña Anita Aretxagak eraman zuen. Gero aitzaki ona zela eta, tripa majo bete zuten batzuk.



■ TXAKURRAK MAIXU

Eguraldi txarra egin arren, erakustaldi bikaina egin zuten Arbizelain elkartutako txakurrek eta hauen jabeek aurreko astebukaeran. Kataluñiako txakur hezitzaile bat ere izan genuen gure artean, Xavier Marsinyach.



■ TXINDOKITIK BUELTAN SAGARDOTEGIRA

Hamazazpi lagun animatu ziren aurrekoan Murruxikok antolatutako mendi urteerara. Txindoki igo lehenengo eta gero majo bazkaldu zuten Abaltzizketako sagardotegi batean. Hezurra kenduta baina, txuleta ederra zegoen.

**Apotzako
San Migel
merenderoa
alokatzen da**

943 71 49 96

**BENGOA
URDAITEGIA**

*Bertako okelak
eta mortzilak*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

HAURRAK



**UMEENDAKO
MODA**

Lezama merkatal
zentrua, 15
943 77 14 86

Mendiolakoa da baina arkitekturako ikasketak hasi zituenetik ez da gura beste etxera etortzen.

Lehenengo Donostian eta orain

Erroman, laster proiektua egitea

besterik ez zaio

faltako ikasketak

bukatutzat emateko.



Amaia Agiriano Erroman arkitektura ikasten

■ **Erromara zertara joan zara?**

■ Ikastera. Diru laguntza bat hartzeko aukera izan nuen urte bete kanpora ikastera joateko. Hiru asignatura besterik ez zaizkit falta ikasketak bukatzeko eta Donostian jarraitu beharrean Erroman bukatzea pentsatu nuen. Ikasketak bukatu eta era berean beste kultura bat ezagutzeko aukera izango nuela pentsatu nuen.

■ **Zergatik aukeratu zenuen Erroma?**

■ Orain urte pare bat Italian izan nintzen eta izugarri gustatu zitzaidan Erroma. Arkitektura ikasten egonda, bestalde, ezagutu beharreko hiria zela iruditu zitzaidan.

■ **Zure ilusioak bete ditu?**

■ Bai, bai, uste nuena baino

askoz politagoa da. Hori bai, hasieran zoratzeko modukoa da. Ni gainera Mendiolan bizitzera ohituta, hango kotoxea, hango zikinkeria, hango zarata, zer zen hori! Baina gero ohitu egiten da bat.

■ **Zer moduz moldatu zara?**

■ Ondo, oso ondo. Hizkuntza zerbait ikasita joan nintzen eta ez dut arazo haundirik izan. Jendea ere, nahiz eta hasieran euren inguruan sartzea zertxobait kostatu, gu baino askoz zabalagoa da eta norberaren aldetik jarriz gero lagun onak egin daitezke.

■ **Kanpoko ikasle gehiago badago?**

■ Bai, asko. Ni nagoen taldean alemaniarrek, txiletarrak, frantsesak eta hemengo beste lagun batzuk daude, italianoez gain. Azken

hauek, gainera, Italiako hainbat lekuetatik etorritakoak dira Sizilia, Zerdeña...

■ **Beraz, kultura nahaste haundia dago...**

■ Bai, eta bakoitza bere ohiturak erakusten saiatzen da. Afariak egiten ditugu ikasleok bizi garen etxeetan eta besteak nola bizi diren eta zein ohitura dituzten ikusten da. Orain ere oportetarik bueltan joaterakoan bakoitzak bere herriko jakiekin prestatutako bazkaria egitekotan geratu gara. Beraz zer eroan pentsatu behar dut. Oso giro polita dago.

■ **Euskal Herria ezagutzen dute?**

■ Batzuk bai, badakite gainera, zerbait gertatzen dela hemen eta galdetu egiten dute. Beste batzuk, barrez, ez.

Gabon ostean hemengo erretratu batzuk eroan nituen eta Suizakoa ete nintzen galdetu zidaten. Italianoek, ostera, gure entzutea badaukate eta batez ere gazteen artean oso ondo ikusiak gara. Erroman lau zentru sozial daude, hemengo gaztetxeen antzekoak baina askoz aurreratuagoak, eta denetan dago ikurriñaren bat edo hemengo kartelen bat. Orain hilabete Fermin Muguruza ere egon zen kantuan.

■ **Erromakoa bukatzean zer egiteko asmoa daukazu?**

■ Proiektua, ikasketak erabat bukatzeko egin beharrekoa da eta. Hau egiten ari naizen bitartean egun erdiz arkitektura estudio batean lana topatuko banu zoragarri, hori da eta egokiena ikasten hasteko.

Asko eman eta gutxi jaso

Azkenaldi honetan kezka edo ideia bat ari da bueltaka nire buruan, eta gure herriko egoera ekonomiko ezin hobearekin lotuta dago.

Langabeziaren inguruko datuei begiranda azkar bat botatzen badiegu, eta aurreko urteetako datuekin konparatzen baditugu, garbi igarriko dugu neurri batean lasaigarriagoak direla datuok. Gure lantegien etekinak ikusgarriak dira, bereziki kooperatibenak, eta horren ondorioz, ehunkada langileenak ere bai, etekinen zati baten parte hartzen dute eta.

Horrek guztiak zuzenean eragiten du auzokideen dirusarreretan, gehienek maila ekonomiko duina daukatela esan daiteke, eta hori ekonomian aberatsa den herri batean isladatzen da.

Toki Jaurbidearen oinarriak arautzen dituen legearen arabera, udalerrri guztiek zenbait zerbitzu eskaini behar dituzte, udaletxeak berak edo beste udalerrri batzuekin elkartuta, eta 5.000 biztanle dituztenek, gainera, parke publikoa, liburutegi publikoa, merkatua eta hondakinen biltegi alternatiboa izan behar dituzte.

Hori guztia gutxiengo zerbitzuei dago-kienez, baina legean hauxe dator jasota: udalerrriak era guztietako jarduerak sustatu ditzakela eta auzokideen beharrei eta nahiei edo xedei erantzuteko zerbitzu publikoak eskaini ditzakela.

Interesgarria izango litzateke jakitea herritarrek zer helburu duten zerbitzu publikoei dagokienez.

Ez da batere atsegina lanaren dirusarrerera horiek gure herrian etxe berrien nahiz zaharren prezioa metro kuadro bakoitzeko ordaintzeko 20 edo 30 urtera hipotekatzea.

Gainera, legearen arabera herritarren nahiak asetzeko bidea irekita daukan herri administrazioa so egiten badugu, ikusi baino ez dago zer eskaintzen duen; azpiegiturretan, ekipamendu eta zerbitzuetan izan ere ez dago ezer edo oso gutxi dago.

Are gehiago oraindik, herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa so egiterakoan bere jarrera pasibo eta estatikoa egiaztatuko dute, gutxienez beste-rik ez baitie erantzuten; hainbat proiektutatik at geratzen da eta beste askori ez die aurre egiten.

Zoritarrez, herriaren maila ekonomikoa etxebizitzaren prezioetan baino ez da igartzen.

Hainbeste eman, hain gutxi jasotzeko.

Ana HIDALGO



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 5

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABAETA

Zuzendaria:
Lyonel
Arquero

Dekorazioa:
Soraya
Arquero

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19

Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta

Bertako okina



Sendabelarrik gehienak infusioak eginez hartzen dira

Sendabelarrekin egindako errezetak

Gizakiak aintzinatik erabili izan ditu sendabelarrak. Garai baten, jakina, hauek izaten ziren edozein gaixotasun sendatzeko zeuden erremedio bakarrak. Gerora, farmazi eta medikuntzaren indartzearekin, sendabelarren erabilera asko gutxitu zen. Horregatik, galdu zen betirako milaka eta milaka sendabelarren erabilera. Hala ere, batzuk ondo baino hobeto gorde dituzte beraien arbasoengandik jasota-

ko errezetak. Guk erreportaje honetan batzuk besterik ez ditugu argitaratu. Hala ere, gure bi protagonisten esanetan, naturak berak ematen dizkigu gure gorputzak behar dituen sendagai gehienak. Hori bai, sendabelarrekin ibiltzeko lehenengo eta behin informazio haundia behar da. Garrantzitsuena, landarea ondo identifikatzen jakitea da. Gogoratu batzuk guztiz toxikoak izan daitezkeela.

Amaia Kortabarría

Elorriokoa da Amaia Kortabarría. Duela 11 urte hasi zen sendabelarrekin lanean eta ordutik hainbat produktu merkaturatu ditu. Bere sekretu guztiak ez dizkigu kontatu, baina hona hemen Amaiari egin diogun elkarrizketa.

■ **Noiztik zabilta sendabelarrekin produktuak egiten?**

■ Duela 11 urte hasi nintzen ukendua egiten. Hirurogeita hamar urte zituen andra zahar bati ikasi nion nola egin eta ordutik produktua hobetuz eta esperimenduak eginez ari naiz. Nire krema laborategietan ere aztertu dute.

■ **Zein produktu egiten dituzu?**

■ Oraingoan, aloe vera belarraz egindako jarabe bat, krema bat eta likidoa egin ditut. Krema, gainera, 3 urtetik patentatua daukat.

■ **Non lortzen dituzu produktu horiek egiteko belarrik?**

■ Alo vera belarra esaterako negutegi batean daukat landatua. Bere jatorria ez da hemengoa horregatik landatu nituen. Gaur egun 500 bat landare izango ditut. Gainontzekoak, "llanten" belarra, adibidez, inguruan batzete dut.

■ **Zer moduz saltzen dira zure produktuak?**

■ Oso ondo, arrakasta handia izan dute, probatu duen jendea behintzat oso pozik dago emaitzarekin. Hala ere, ez dute miraririk egiten eta jendeari bestelako zainketak

egin behar dituela ere esaten diot.

■ **Beste sendabelarrik edo produkturik erabiltzen duzu?**

■ Bai, duela gutxi, 85 urte dituen lehengusina batek emandako jarabe bat egin dut, baina hori ez dut saltzeko egin etxekoei ematen diet.

■ **Arriskutsua da belarrik ondo ezagutu barik horrelako produktuak egitea?**

■ Ni beti ibili izan naiz liburuekin eta nik erabiltzen ditudan landareak ondo ezagutzen ditut. Alo vera belarra esaterako, ondo aztertua daukat, eta badakit, landare horren orri bakarrak farmazian aurkitu daitezkeen bitamina guztiak dituela.

■ **Zure sekretuak erakusteko asmorik?**

■ Momentuz ez daukat nire



sektuak ikasiko dituen ondorengorik, 5 seme-alaba ditut, baina bakoitzak bere lana dauka eta ez dute ikasteko aparteko interesik. Gaur egun, kremaren formula sobre batean sartuta giltzapean dago laborategian.

■ **Medikuarengana joateko ohiturarik baduzu?**

■ Bai, kolesterola daukat eta azterketa egiteko joatan

naiz. Hala ere, ez dut botikarik hartzen, erabiltzen ditudan sendagai guztiak naturalak izaten dira.

■ **Zein produktuk du arrakasta gehien?**

■ Orain krema asko saltzen dute. Ume asko daude barizelarekin eta orbarik ez gertzeko erosten du jende askok nire krema.

Amaiaren ukendu eta pomadak

Amaia Kortabarriak hiru produktu saltzen ditu. Horietako bat patentatuta dauka, gainera. Erabiltzen dituen belar batzuk ezagunak dira, baina Amaiak ez ditu osagai guztiak argitaratzen, batzuk sekretuan mantentzen ditu.



Jarabea: Alo Vera belarraz egindakoa da. Brasilen zegoen fraile frantziskotar batek eman zion Amaiari jarabe hau egiteko errezeta. Bere esanetan, energia berreskuratzeko oso baliagarria da. Horrez gain, minbizi arinak sendatzen laguntzen du.

Krema: Amaiak patentatuta du produktu hau. Hau ere Aloe Vera landarearekin egina da, baina gainontzeko osagaiak sekretuan mantendu ditu. Aknea, kailuak, orbainak, ekzemak eta soriasisa osatzeko balio du besteak-beste.

Likidoa: Amaiak belar ezberdinez egiten du likido hau, baina ez ditu aipatu zeintzuk diren. Sinusitisa 10 egunetan osatzeko gai da produktu hau.


Antonioren errezetak

Gezurra badirudi ere Antonio Laskurainek 85 urte bete-ko ditu aurten. Atxabaltar honek goizero hartzen ditu sendabelarrez eginiko infusioak. Hori da bere afizioa, belarrak hartu eta bere erabileraz egutzea.

Lan asko egindakoa da Antonio Laskurain, horien artean afizioz bizargin izandakoa ere bada. Burusoiltasun ugari sendatu ditu, gainera. Horretarako badu gainera bere errezeta sekretu propioa. "Ezsemak" kentzen dituen belar bat ezagutzen du, "Letxeguela" izenekoa. Belar hau

ekain bukaeran batzen da. Puntak kendu eta handik urteten duen likido zuria-ekin igurtzi beharra dago azala. Baina, nahiko arriskutsua ere bada, neurrian eman beharra baitago. Izan ere, likido hori oso indartsua da eta azalean barrura sartzen da. Antoniok hori du bere sekretu haundiena, eta makina bat burusoiltzako erremedioa bilatu du letxeguela bedarrarekin.

Antioniok beste gaixotasun batzuk sendatzeko errezeta batzuk ere ezagutzen ditu. Hona hemen horietako batzuk.



ERROMEROA



Erromero belarra oso eza-guna da bere usain goxoagatik. Antoniok memoria hobetzeko oso ona dela esan digu. Infusio bat egin, eta hilabetez, egunean pare bat hartzeko gomendio eman digu. Katarroak kentzeko ere erabilgarria da. Horretarako, Antoniok, malba belarrak, erromeroz eta eskukada gatz, ur irekitara bota eta 15 minututan geldidatu eduki gero garrantzitsua da bere esanetan, galtzerdiak jantzi eta gaixoa ohera sartzea.

ANISBELARRA



Aretxabaleta inguruan edozein tokitan aurkituko dugun landare hau. Gaztelaz "hinojo" ere deitzen zaio. Antoniok katarrorik ez hartzeko erabiltzen du bedar hau. Goizero-goizero, mantzanilla eta tomillo apur batekin nahasturik hartzen du anisbedarraz egindako infusioa. Antonioren esanetan, berak ez du katarrorik harrrapatu joan den 5 urtetan. Anisbedarra gosea eragin eta digestioa ondo egiteko ere erabiltzen da. Aurrez landarea gerizpean lehortu beharra dago.

TXIKORI-BELARRA




Oso erraz aurkituko dugun landarea da Txikori-belarra edo gaztelaz Diente de Leoa delakoa. Hala ere, Antoniok egunero erabiltzen dituen sendabelarretatik gutxien ezagutzen duena da. Berak kolesterola jeisteko erabiltzen du infusioak hartuz. Horretarako landareaz gain, sustarra eta lorak ere erabil daitezke. Landarea moztuz gero, ateratzen den esne itxurako likidoarekin gariak ere igurtz daitezke. Hori eginez, gariak desgertzen joango dira.

AZERI BUZTANA



Birikak garbitzeko erabiltzen du Antoniok azeri belarra. Landarea lehortu ondoren infusio moduan hartzeko gomendioa egin digu. Horrez gain, azeri buztana, erreumarentzako eta hemorragiak eteteko ere erabili ohi da. Zauriaren arrastoak orbaintzeko ere ezin hobea da landare hau. Horretarako, infusioa egin eta traputzu batekin kontuz-kontuz garbitu behar da zauria gauero. Konturatu orduko garbitu eta itxiko da zauria. Estula lasaitzeko ere erabili ohi da.



Xakea

Fran 5. eta Aitor 12. Euskadiko xake txapelketan. Emaizta bikaina lortu dute Fran Miguel eta Aitor Alcaidek Pasko Astean jokatu den xake txapelketan. Arabako Hotel European sei egunez luzatu zen norgehiagoka, eta Fran Euskadiko 5.a izan da, eta Aitor 12.a. Balorazio baikorra egin digute, izan ere, maixu profesionalen aurka lehiatu behar izan dute. Biak ere oso nekatuta bukatu dute, sei egunen ondoren, ez da gutxiagorako.



Futbola

Preferentea 7. postuan mantentzen da. Azkenengo partiduan Zarautzi 2-1 irabazi ondoren, zazpigarren lekua hartu du preferenteak sailkapen orokorrean. Aloña izango du hurrengo aurkaria. Sailkapenean postu bat aurretik dago talde oñatiarra, eta partidu garrantzitsua izango da duda barik. Hala ere, bederatzitako puntu aldea dago bi taldeen artean eta hori kontuan izanik, zaila izango du Udak sailkapenean gora egitea.



Piraguismoa

Errobira piragua urteera. Murruxiko mendi elkarteko piraguismo sailak Errobira piraguan ibiltzeko urteera antolatu du. Maiatzaren 19 eta 20 bitarteko astebukerari izango da eta Errobi ibaiako zati bat jaitsiko da. Federatuta egotea beharrezkoa da, eta izena eman gura izanez gero, datorren astean eguaztenean egin ahal izango da Murruxikoko lokalean 19:00etatik 20:00ak bitartean. Hurrengo asteetan martizenetan eman ahal izango da izena.



Squash, pala...

Squash, pala eta esku pilotan apuntatzeko epea luzatu. Udaletxeko kirol zerbitzuak hiru txapelketa antolatu ditu, squash, pala eta esku pilotarena hain zuzen ere. Beste urte batzuetan data desberdinetan jokatu badira ere, aurreko maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 23a bitartean jokatu dira. Izena emateko epea hasiera batean apirilaren 27a artekoa zen arren, oporrak tartean izan direla eta, maiatzaren 2a artean luzatu da.

Hector Prieto 17 urteko gazte atxabaltarra da. Bost urtetik hona Boccia praktikatzen du. Apirila hasieran Euskadiko selekzioaz autonomietako txapelketan izan zen, eta maiatza bukaeran, barrez, Espainiako txapelketan hartuko du parte.

■ Hector, zer da boccia?

■ Boccia ez gaitasun fisiko edo psikiko bat dugun pertsonok egiten dugun kirol bat da, petankaren antzekoa. Nire kasuan, aparatu bat erabiltzen dut bolak botatzeko. Laguntzaile bat izaten dut nirekin, eta berari adierazten diot, aparatua zein norabidetan ipini, eta freno zein neurritan jarri behar duen. Gero pilota segundu batez eskuan izan behar dut eta jaurti. Laguntzailea niri begira dago, eta ezin du bola dagoen lekura begiratu.

■ Noiz hasi zinen kirol hau praktikatzen?

■ Bost urtetik hona praktikatzen dut. Kurtzebarri eskolan ari nintzela, "Berdintasunaren astea" izan

genuen eta kanpoko pertsona batzuk hainbat erakusketak egitera etorri ziren. Han ezagutu nuen lehen aldiz boccia. Gero eurak deitu zidaten, kirol hau egin gura nuen galdetuz.

■ Eta horrela hasi zinen. Ordutik nola aldatu da zure kirolari ibilbidea?

■ Hasieran klase ostean entrenatzen nuen, eskolan bertan. Gero Bergarara joaten hasi nintzen, han entrenatzen baitute ni moduko gainontzeko kirolariek ere. Orain hiru urte, barrez, federatu eta txapelketetan parte hartzen hasi nintzen. Gehienak herrialde mailako txapelketak izan dira, aurreko, ostera, Autonomietako txapelketan izan naiz. Eta maiatzean ostera ere joango naiz Bartzelonan jokatu den estatu mailako txapelketara.

■ Zein helbururekin joango

zara txapelketara?

■ Lehen aldian denez, esperientzia barriaz gozatu eta ahalik eta ondoen egitea izango da nire nahia. Taldeko modalitatean hartuko dut parte. Aurreko ondo jokatzen ari naiz, eta nire burua ondo ikusten dut, itxaropentsu eta ilusio handiak daukat txapelketarako.

■ Ez gaitasun bat izanda, zer suposatzen du kirol bat praktikatu ahal izateak?

■ Ni ere zerbaiterako gai naitzela erakusten dit. Nire lagunak kirola egiten ikusten ditut, baina nik ere erakusten diet beraiei zer egiten dudan.

■ Nola eta non entrenatzen duzu?

■ Bergaran elkarte bat dago, eta bertara joaten naiz astean behin. Han egiten ditugu entrenamenduak.

■ Eguneroko bizitzan ozto-

po ugari aurkitzen dituzu?

■ Entrenamenduak Bergaran direnez, arazoak izaten ditut joan-etorriak egiteko. Horregatik Udala arazo hori nola konpondu irtenbide bila ari da.

■ Bocciaz gain beste kirolik praktikatzen duzu?

■ Slalom-a ere egiten dut batzuetan. Dena dela, kirol hau buruko paralisia dutenei zuzenduta dago, eta horregatik gutxiago egiten dut.

Hector Prieto

Boccia-n Espainiako txapelketara



■ **TXARTEL MANKOMUNATUA BI HILABETERAKO MARTXAN** Debagoieneko kirol zerbitzuak txartel mankomunatua martxan jarriko du datozen bi hilabeteotan. Momentuz probarako besterik ez da izango, izan ere, txartel hau 2002ko urtarrilean martxan jartzea aurreikusten da. Txartel horrekin, Aretxabaletako kirol etxean bazkide denak, Debagoieneko kirol zerbitzuak ere erabili ahal izango ditu maiatza eta ekainean zehar. Hau da, Oñati, Arrasate eta Bergarako kiroletxeko zerbitzuak. Ekimen horrek herritarrei ahalik eta kirol zerbitzu osotuena ematea du helburu.

■ **EUSKAL LIGAKO JUBENILEK LIGA BUKATU ETA KOPA HASI** Datorren aste-bukaeran jokatuko dute Almen Uda Euskal ligako jubenilek ligako azken partidua eta gero kopa jokatzen hasiko dira. Lengokoak taldearen aurka neurtu beharko dituzte indarrak, kanpotarren etxean. Aurten hamasei talde aritu dira Euskal ligan eta 12. lekuan dago Aretxabaletako taldea. Sailkapen horrekin maila mantenduko dutenez, hein handi batean behintzat, euren helburua beteko da.

Maiatzeko lehen domekan Otala zelaiko krossa egingo da

Urtero moduan maiatzeko lehenengo domekan Otala zelaiko krossak ez digu hutsik egingo. Urkulu urtegiari buelta emateko korrikalari ugari batuko da, eta atxabaltarrak ere izango dira tartean.

Goizeko 10etatik aurrera gaztetxoek karrerak izango ditugu, eta ondoren, proba nagusia hasiko da. Aurtengo edizioa aurrekoen antzekoa izango da. Partaideek goizeko 9:30etik 10:30era bitartean izena eman beharko dute urtegiaren bertan. Aurreko edizioetan moduan gizonetakoak, junior, senior eta beteranoetan banatuko dira, eta emakumezkoetan, barrez, maila bakarra egingo da. Karrera goizeko

11etan hasiko da, seniorrek bi buelta eman beharko diote urtegiari, eta gainontzekoek buelta bakarra.

Hogeta bi urteko historia

Orain 22 urte, 1979. urtean hain zuzen, ospatu zen lehen aldiz Otala zelaiko krossa. Hasierako karrerak gaur egungoak baino popularragoak eta jendetsuagoak izan ziren. Hala ere, krossak garai bateko populartasuna galdu badu ere, urteroko zitara aurpegi ezagun asko hurbiltzen da, baita korrikalari profesionalak ere. Aurtengoan ere bailarako jendeaz gain, kanpoko korrikalari ugari hurbiltzea espero da Otala Zelaiko krossera.



■ **ERRASTI ANAIAK DEBA ARROKO PILOTA TXAPELKETAKO FINALA** Datorren domekan, hilak 29, Deba Arroko pilota txapelketako finala jokatuko dute Errasti anaiek. Neurketa Bergarako Muguruza- Gutierrez pilotarien aurka izango da Antzuolako frontoian goizeko 10:30ean. Finalera iristeko, besteak beste Elgeta eta Arrasateko pilotariak gainditu behar izan dituzte atxabaltarrek, eta finalerako itxaropentsu daude. Ondo jokatu zera, partidua irabazi daitekeela baieztu digute. Partidua Ibon eta Unai anaiek jokatu duten arren, txapelketan zehar Alzola eta Lasagabasterrek ere jokatu dute maila horretan. Guztien ahaleginari esker finalera iristea lortu dute, eta ez da gutxi. Orain finala aurrez aurre dute, eta zortirik onena eurentzat.



Otala zelaiko krossen Ramon Jausoro helmugara heltzen

Zubia

GIZONEZKOENTZAKO ZAPATAK

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00
ARETXABAleta

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gotbea kalea ☎ 943 79 05 83

Hirusta jatetxea laster zabalduko da herrian. Naiara Azkoitia eta bere etxeokak dira jatetxea martxan jarriko dutenak. Egun gutxi gelditzen dira taberna zabaltzeko, eta irrikitan daude eguneroko martxari heltzeko. Jatetxea maiatza erdialderako behintzat zabalik egotea espero dute.

Naiara Azkoitia

"Desiatzen nago jatetxea zabaldu eta lanean hasteko"



■ Nolatan sukaldari?

■ Betidanik gustatu izan zait sukaldaritz. Oñatin sukaldaritz ikasten hasi nintzen, eta jatetxe bat hartzeko aukera suertatu zitzaidan lanean hasi nintzen.

■ Geroztik denbora askoan egon zara jatetxe batean lanean.

■ Bost urte egin ditut, eta orain gurea zabalduko dugu.

■ Noiz zabalduko duzue?

■ Lanak pixkat atzeratu egin dira, hala ere, maiatzaren erdialderako zabalik egotea espero dugu.

■ Zer suposatzen du norbere jatetxea zabaltzeko?

■ Etxekoon artean zabalduko dugu. Lana gogotik egin beharko dugu, baina hori badakigu zer den, lehenago beste jatetxe batean egon garelako.

■ Zabaltzeko desiatzen?

■ Bai, lanean normaltasunera itzultzeko batez ere.

■ Zu zeu arituko zara sukaldean?

■ Nik zerbitzari lanak egingo ditut batez ere, baina denbora dudanean sukaldean ere lagunduko dut. Nire amak egingo ditu sukaldari lanak.

■ Nondik dator Hirusta izena?

■ Aizpari bururatu zitzaion izena, eta gustatu egin zitzaion.

gun, hala ere, burukomin dexente eman zigan izena pentsatzeak. "Trebol" esan gura du erdaraz.

■ Zelakoa da sukaldari lana?

■ Polita baina momentu batzuetan estres haundikoa.

■ Ordutegia gogorra da?

■ Ohituta nago astebukaeretan lan egitera eta asteen zehar jai hartzera.

■ Janari gustuko bat?

■ Danetik jaten dut, eta nahiko jatuna naiz. Arraina gura-gura dut okela baino.

■ Zein plater gertatuko zeniguke gustura?

■ Piper beteak.

■ Etxean aritzen zara sukaldean?

■ Bai, asko gustatzen zait sukaldea, eta ez naiz asperitzen.

■ Argiñano ala Arzak?

■ Argiñano kamera aurrean ona da, baina sukaldari moduan Arzak gehiago gustatzen zait.

■ Jatetxe gustuko bat?

■ Makatzeta, Bizkaian dago.

■ Zein motako janaria gustatzen zaizu?

■ Hemengoak, espezieak dituenak ez zait gustatzen.

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea ☎ 943 79 81 78 / 6700997274



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



**FELIX
PAGALDAY**


Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

6. IBILBIDEA

ARETXABALETA-LETE-ELIZABARRI-ARLUTZ-ALABITARTE-LEIXARGARATE-KAROI-ESKORIATZA-ARETXABALETA

Luzera: 15,6 kilometro - Denbora: 4 ordu 10'



Aretxabaletatik Eskoriatzara abiatuko gara. Eskoriatzan kanposantutik gora joko dugu Lete auzorantz.

Behin Lete auzora heltzen garenean, Bideko ama amabirjinarte jarraitu behar da. Hemendik ezkerretara Mendiolarra joan daiteke, eskumatara, barrez, Eraña auzora. Guk zuzen eta goruntz jarraituko dugu, Puntziagara edo Mandobideko Ametsu izena duen Lekura iritsi arte. (55')

Goruntz zuzen eginda Puntziagan agertuko gara, eta txabola pasa eta eskumaruntz bagoaz Ametsura helduko gara. Ametsurantz bidea hartuko dugu. Ametsun orain dela urte gutxi arte, hilari bat egon da. Garaikua baserriko Okina abizena zuen gizon baten. Mutiko batzuk Eleizabarrin jolasean ari zirela harri bat bota zuten, behean ire ebaten ari zen gizona azpian hartu eta bertan hilik suertatu zen.

Ametsun ezkerretara joko dugu eta Dragalekuko tontorrera iritsiko gara. Tontor horretan sartzen zen lehen zegoen idien bidea, horregatik deitzen zaio Dragalekuko tontorra.

Hemendik Eleizabarriruntz hartu eta ermitan azalduko gara. Eleizabarririko iturrian ur tragu bat edan eta bertatik gora abiatuko gara. (1:20')

Goruntz jarraitu porlanezko aldatz gogor bat ikusi arte, aldatza hasten den lekutik goiko gainerarteko bitartek Apotzakarta du izena.

Apotzakartako aldatza hasten den lekuan, eskumatara barrenean, Apotzakartako arraska dago, (Basoetan egoten diren ur askei deitzen zaie horrela).

Aldatza igotzen dugunean, ezkerretara Kurtzebarri (1.146) joan daiteke, eskumatara hartuta pinudi batetik



Nafarroa kalea, 4 b.
Postakutxa 103
Tfnno.: 943 79 03 34



Alabita ingurua, Alabitarateko tumulutik ikusita

aurrera, Apotzakartako txabola pasa eta bertako sendatik abiatuz garbigune batera helduko gara. Hemen, ezkerrean, Aranguren Mendia (1.158) ikus dezakegu, aurrera eginez Bistakotxa. (1.069).

Aurrera egin eta behin pistan sartzen garenean, eskumatara Erlaitz mendia (1.108) geratzen da, ezkerretik beheruntz jarraituz gero Degurixako arrotik Degurixara iritsiko gara, baina guk pistatik jarraituko dugu. Pistako aldatza igotzen dugunean ezkerretara hartuko dugu, eta Arlutz Mendiraino (1.147) joango gara. Zati laburra dago pistatik Arlutzeraino (2:05'). Arlutzen publiko metro bat ikus dezakegu.

Arlutzetik barriz pistara etorriko gara. Aurreraxeago eskumatara eta pistaren azpikaldean geratzen da Otsuen arratia. Bertako sendatik joaten bagara Bidabera helduko gara. Bi tumulu aurki daitezke han, Bidabetik eskumatara Lapatzaren txabolatik aurrera Leixargaratera joan gaitezke, eta aurrera eginez Bizkarlatza gaina (1.113) hartu eta Alabitartera (1016) jaitsiko gara. Gu hona etorriko gara.

Alabitarretik zuzen Mugarriluzera joan daiteke, ezkerretara Alabita geratzen da, eta eskumatara hartuz, Elordi pasa, Leixargarateko iturrian trago bat

edan eta Leixargaratera jaitsiko gara (999).

Leixargarateko bidekurtzean, (2:30') beheruntz dijoan pista hartuko dugu, eta pista hau jarraitu. Bidean, haizelekuko iturria dago, mandobidearen azpikaldean geratzen da, haitz zorrotz baten azpian. Beheruntz jarraitu eta karoï baserrian agertuko gara, Urkulu erreka pasatzen da bertatik. Aintzinako aska bat dago han. (3:20').

Karoïtik aurrera joanez, Jausoro baserria dugu begi bistan; iturri eder bat dago leku horretan. Hemendik aurrera eginez, Bidekurtze batera helduko gara. Goruntz hartzen badugu, Mandobideko Asuntzeta edo Itsasondo Errekara goaz, hortik barriz Mendiolaruntz har dezakegu. Baina gu behera joango gara eta kaminoz kamino Eskoriatzaraino jaitsiko gara (3:50'). Hemendik Atxabaltara pasiotxo bat besterik ez zaigu geratzen... (4:10').



Degurixa, erdian Maruatx (1.027) eta atzean Andarto (1.076)



Leixargarateko bidekurtzea (999 m.)

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
Aretxabaleta

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

Marti

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72



Kirolez kirol

Ez, hau ez da ETBko Kirolez kirol saioa, baina antz handia izan behar duela uste dut. Herri honek kiroltako notiziak behintzat sortzen ditu, zeozer sikiera. Han eta hemen gertatu direnak kontatzen hasita, Eibar aldera joko dugu lehenengo. **Igor Arenazak** garaipenaren gola eman zion aurrekoan Eibarri, eta gola oraindik borobilagoa izateko, **Jose Javier Barke-
rok** egindako pase bikainari esker. Biak ere denboraldi polita egiten ari dira. Aber gehiago ere sartzen dituzten.

Fran Miguelek eta **Aitor Alcaidek** Euskadiko xake txapelketan lortu dutena ere ez da gutxiagorako. Hauek ere txapelketa borobila jokatu dute. Franek Euskadiko bostgarren xake jokalaririk onena dela erakutsi digu. Ez zuen partidu bat bera ere galdu, eta maixu profesionalen aurka lehiatu zen, baina puntuetan besteak aurreratu zitzaizkion. Horrek bai duela benetako meritua. Aitorren lana ere bikaina izan zen. Hamabigarren bukatu zuen. Animo eta aurrerantzean ere jarraitu horrela bikote.

Errasti anaiak ere jo eta su ari dira. Deba Arroko pilota txapelketako finalera iritsi dira, eta datorren domekan jokatu dute

final handia. Autobus bat antolatu beharko dugu Antzuolara joateko, izan ere, hantxe izango dute partidua Bergarako pilotarien aurka. Aber txapelarekin etxeratzen diren. Zortetik onena biontzat!

Iban Sastre, barrez, ixilean baina lana gogotik egiten ari da. Oraindik ez ditugu lan horren emaitzak ikusi baina lan eta lan ari dela ezingo dugu ukatu. Euskal Herriko itzulitak Frantziara joan zaigu. Han klasika bat korritu barri du, eta beste buelta batzuetan ere parte hartuko du Frantzia aldean. Animoak honi ere, beharko ditu eta.

Pozten naiz herrian horrenbeste kirolariren izenak aipatu behar izateaz, eta barri onak direnean gainera... Baina nire bihotzean arantza txiki bat egon badago, eta ezin dut ixilean mantendu. Non daude gure herriko neska kirolariak? Neskak ez ete dugu kirol egiten ala? Bai, egin egiten dugu, baina ez dugu aurpegia erakusten. Bueno hurrengorako ia ba neskaren baten izena ekarten dugun gure txoko honetara. Otala zelaiko krossean seguru nago neska atxabaltarren bat baino gehiago egongo dena. Animo eta hantxe ikusiko gara.

M. J. Arbizu

Liburu barrien zerrenda

GAZTE LITERATURA

- Harry Potter y el cáliz de fuego / J.K. Rowling
- Luna jaunaren azken lana / César Mallorquí
- Fernandoren heriotza amezketarra / Koldo Izagirre

NOBELAK

- Gorde nazazu lurpean / Ramón Saizarbitoria
- La Montaña del Alma / Gao Xingjian
- Mal de amores / Ángeles Mastretta
- El corazón del tártaro/ Rosa Montero
- Los parentescos / Carmen Martín Gaité
- La granja / John Grisham
- Sefarad : Una novela de novelas / Antonio Muñoz Molina
- Balzac y la joven costurera china / Dai Sijie
- El jardinero fiel / John Le Carré
- Isabel, la reina : Las hijas de la luna roja / Ángeles de Irisarri.

- Monte miseria / Samuel Shem
- Y la serpiente dijo a la mujer / Lourdes Oñederra
- Para siempre / Amado Gómez Ugarte
- Una ciudad del Norte / Pedro Ugarte

KOMIKIAK

- Asterix eta Latraviata / Testua eta ilustrazioak Uderzo
- Txerokiren txorakeriak / Iñigo Sarasola

KONTSULTA LIBURUAK

- URTEKARIA 2000 . – (Difor)
- Hiru pauso, hiru norabide : Trilogia Eskandinavian / Ramon Olasagasti, Josu Iztueta, Aitor Elduaian
- Kontatzeke lagata / Edu Romero Treuiller
- Palestina, ombligo del mundo / Ander Izagirre

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

Galdera okerrak:

- Zeinena gustetan zara?
- Josuna gustetan naz.

Galdera eta erantzun zuzenak:

- Zein gustetan jatzu?
- Josu gustetan jat.



GAIKI: Zeinena gustetan zara? Josuna gustetan naz.

ONDO: Zein gustetan jatzu? Josu gustetan jat.

APIRILA**28 ZAPATUA****■ MUGIMENDU KOSZIENTEA**

Maria Morerak zuzenduta Zainduz zentruan Mugimendu koszienteari buruzko saioa egongo da. 16:30etik 20:30era bitartean.

29 DOMEKA**■ MENDI URTEERA**

Zaraia mendi taldeak Arabako itzuliko beste etapa bat egingo du: Oto goikoa-Langraitz. Goizeko 8:00etan izango da urteera Zaraia lokaletik egun guztirako.

MAIATZA**2 EGUAZTENA****■ ODOL EMATEA**

Arratsaldeko 16:15etik 20:00etara bitartean odola eman ahal izango da osasun zentruan.

5 ZAPATUA**■ ELIZABARRIKO EGUNA**

Meza egongo da goizean, eta ondoren salda eta txorizoa inguratzen diren guztientzat.

6 DOMEKA**■ HAURREN MENDI URTEERA**

Aitzorrotzeko eguna dela eta, Murruxoko mendi elkarteak Aitzorrotzera mendi urteera egingo du. Urteera goizeko 9:30ean partenoitik.

■ OTALA ZELAIKO KROSSA

Goizeko 10:00etatik aurrera gazttxoen probak egongo dira. 11:00etan proba nagusia hasiko da.

9 EGUAZTENA**■ ODOL EMATEA**

Arratsaldeko 16:15etik 20:00etara bitartean odola eman ahal izango da osasun zentruan.

10 EGUENA**■ DIAPORAMA**

Jon Arretzek Txinari buruzko diaporama emango du 19:00etatik aurrera udaletxe zaharreko aretoan.

13 DOMEKA**■ MENDI URTEERA**

Murruxok nagusiandako San Donato mendira urteera antolatu du. Urteera goizeko 8:00etan izango da Azbeko geltokitik. Izena emateko datorren asteazkenean egin daiteke Murruxon (Durana, 30) 19:00etatik 20:00etara.

IKASTAROAK

■ LUZAKETA IKASTAROA
Sadhana yoga eta psikoterapia zentruak gihar luzaketa ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 29tik ekainaren 28ra bitartean emango da, martizen eta eguenetan 20:30etik aurrera. Informazio gehiago 616965795 telefonoan.

EGONALDIAK

■ EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN HABEK,
Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak euskara ikasten ari direnentzat egonaldiak antolatu ditu familia euskaldunetan. Parte hartzeko 18 eta 45 urte bitartean izan eta, gutxienez, euskalduntzearen 8. urratsari dago-kion euskara-maila izan behar da. Ikasleak hilabete-ko edo bi hilabete-ko egonaldia egiteko eskubidea izango du, uztaila, abuztua eta irailean. Izena emateko eskabide orria bete behar da, eskuratu gura izanez gero 943 022621 telefonora deitu.


Apirilaren 26an

WESTERN TRILOGIA hasiko da
- **POR UN PUÑADO DE DÓLARES (1964)**

Zuzendaria: Sergio Leone.
Orduetgia: 22:00etik aurrera

Maiatzaren 3an

- **EL BUENO, EL FEO Y EL MALO**
Zuzendaria: Sergio Leone.



Maiatzetik aurrera
10:00etan hasita

ZATOZ!

Zorion agurrak



Josu Idigoras Merchan
Apirilak 18
(2 urte) Zorionak aita, ama eta Maiteren partetik.



Leizuri Nuñez
Apirilak 21
(8 urte)
Zorionak guraso ta Aroaren partez.



Nagore Cebrino
Arkauz (urte 1)
Apirilak 24
Zorionak Lurdesen eta etxekoan partez eta urte askotarako.



Edurne Sanchez Zubiria (5 urte)
Apirilak 27
Zorionak eta muxu haundi bat osabazibea, Jon eta Aitor lehengusuen partez.



Jokin Isasis-mendi (urte 1)
Maiatzak 5
Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Txistuak • Txaloak

Bada denboratxo bat udaletxeko zerbitzuetako langileak konpondu bako arazo bateaz arduratzen ikusi ez ditugula, barrera arkitektonikoak. Lehen udaleko aurrekontuetan beti agertzen zen gure herrian dauden barrerak poliki-poliki kentzen joateko diru zatia. Hala ere, eraikuntza batek ere ez du errepidea zeharkatzeko jaitsierarik nahiz eta zebra bidea egon. Horrek buruhauste bat baino gehiago sortzen dizkie ume kotxeaz doazenei, ezinduei, pertsona nagusiei... 50 metro aurrerago, bestalde, jaitsierak badaude baina zebra bidea margotu barik dago. Hemendik arazo txiki garrantzitsu hauek konpontzeko animatzea besterik ez zaigu gelditzen, eta bide batez, kotxe gidariei zebra bideak errespetatzea eskatu.



Jaiotakoak

■ Beñat Basabe Arkauz

Apirilaren 13an.

■ Endika De Tena Miguel

Apirilaren 20an.

■ Danel Sarasua Gonzalez

Apirilaren 21ean.

Hildakoak

■ Francisca Orbeago Uranga

Apirilaren 12an. 73 urte.

■ Jose Altube Aranguren

Apirilaren 14an. 73 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkartea	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murrukixo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoa	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdia

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdia	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Andartora mendi urteera

Argazkian duzuen mutil koadrilak Andartora mendi urteera egin zuen 1959. urtean. Aurretik goizeko 6:30etako meza entzun zuten parro- kian, eta han batutako mendizaleak dituzue fotografia-koak. Meza oso goiz izan arren, mendizaleentzat ordu aproposa izaten zen handik gero zuzenean mendira abiatzeko. Izan ere, horrela ez zegoen aurrez planik egin

beharrik, eta meza ostean, erretratuan ikus dezakegun moduan, gazte nahiz zahar elkartzen ziren mendira joateko.

Ordurako txirukak ere baziren merkatuan, fotografian ikus dezakegun moduan.

Argazkian ezkerretik eskumara: **Jose Ignacio Iturbe, Roberto Urreta, Jose Ignacio Bengoa, Jose Luis Eraña, Jose Luis Uralde, Javier Urre-**

ta, Javier Iturbe, Miguel Igartua, Iñaki Bengoa, Javier Aranguren eta aurrean Benito Gaztañaga.

Argazkia eta informazioa: Miguel Igartua.

** Aretxagazetan zuen fotografia zaharrak argitaratu gura badituzue, Aretxagazetara zuzendu, Durana, 11 (2. solairua).*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Taberna eta jatetxeen gida

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



**Kafetegia
eta
taberna**

H A I Z E A

Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Amets taberna



Taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 943 79 01 29

Gurea taberna

*Eguneko menuak
plater konbinatuak*

GUREA

Durana kalea • 943 79 20 64

Basabe jatetxea

Menu eta afariak



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Arlutz taberna




MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Gustoko musika

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte, 9 • 943 79 92 01

Express



Santa Kurtz, 16
943 79 23 43

zure gustoko giroa

Mendiola erretegia

ESKORIATZA

Tfno 714345



**Bazkariak
eta afariak**

**Astehenetan
itxita**

Mendiola auzoa • Eskoriatza • 943 71 43 45

Baster alde jatetxea



**SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN**

Galaritza auzoa
© 943 79 24 58
ARETXABALETA

Matikua jatetxea



Azatza auzoa ♦ Tel.: 943 79 16 68

Dorleta taberna

Dorleta

'Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
943 79 94 15

Josu taberna

**Josu
harategia
taberna**



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08

Taberna Berri



Durana, 26 • ARETXABALETA
943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA



lider **naturala**

Hona hemen Ford Mondeo Berria. Harrituko zaituen autoa. **Babeserako Sistema Adimentsu Esklusiboarekin.** Abian noiz jarri badakiten belaunaldi berriko 6 aire poltsarekin. ABSrekin. EBArekin. Egonkortasun Kontrol Sistemarekin. Eta askoz gehiago. Kanpo diseinu ausarta eta dotorea. Aluminiozko 16 vko motoreen belaunaldi berria, potentzia handiagokoak eta eraginkorragoak. Gasolinan 170 cv ra artekoa eta 115 TDdin. Argibide gehiago eta froga www.ford.es edo 902 442 442.

 **MUGARRI**

ford**mondeo** berria



Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es